

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, OSAKIDETZA-OSASUNAREN EUSKAL ZERBITZUA ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2013.

Joan den uztailaren 28an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak aho batez onartu zuen Osakidetza-Osasunaren Euskal Zerbitzua Zuzenbide Privatuko Erakunde Publikoaren ekonomia-finantzazko kudeaketaren fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldiari dagokiona; baita, Osatek SArena ere, non Osakidetzak baltzu kapitalaren % 100aren jabetza duen.

Txostenak ondorioztatu du bai Osakidetzak bai Osatek, SAK zuzentasunez bete dutela 2013ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia; alabaina, ikusi da Osakidetzak kontratu txiki modura izapidetu dituela botika eta bestelako hornigaien erosketak, 53,3 eta 75,9 milioi eurorenak, kontratazioaren xedea zatikatuaz.

Bestetara, bi erakundeen urteko kontuei dagokienez, HKEEk uste du alderdi esanguratsu guztietan erakusten dutela 2013ko aurrekontu ekitaldiaren jardura ekonomikoa ez ezik, ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena ere 2013ko abenduaren 31n; salbuespen da Osakidetzaren kasuan geroko ekitaldietan hainbat langileren erretiro osagarrien kontzeptuan ordaindu beharreko obligazioak kontabilizatuak ez izatea. Osakidetzak gastu hauek ordaindu ahala kontabilizatzen ditu (7,2 milioi euro 2013an). Aditu independenteek egindako aktuario azterketa baten arabera, kontabilizatu gabeko zenbatekoak 98,4 milioi euro egin zituen 2013ko abenduaren 31n.